

# GEBren dokumentazio zentroan nabarmendutako artikuluak 2023an



## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko abenduako artikulu nabarmenak



**LACHALDE, M.L. y SALAS, C., 2023.** [Working holiday: y después, ¿qué? La elección de viajar y trabajar luego de una carrera universitaria.](#) *Orientación y sociedad*, vol. 23, no. 1, ISSN 1851-8893

*Working holiday* bisa 18 eta 35 urte bitarteko gazteek atzerriko lantokietan egiten duten turismo-jarduera okupazionala da. Praktika hori gauzatzea aukeratzeak oraina eta bidaiatzeko aukerak problematizatzea eskatzen du, erabaki horretan eragina duten arrazoiez eta faktoreez galdetzeaz gain. Horregatik, psikologiaren espezialitate gisa, orientazioaren funtsezko kontzeptuak planteatzen eta artikulatzen dira, profesional espezializatuek, hau da, kontsultatzen duenak okupazio-errealitateak aztertzen dituen unean- uneko ezagutza eguneratuak dituzten orientatzaileek, laguntzearen garrantziaz hausnartzeko. Aukera mota hori (*working holiday*), adibidez, unibertsitateko karrera bat amaitu ondoren gerta daiteke. Hori dela eta, kanpoan beren unibertsitate-tituluarekin zerikusirik ez duten lanekin lan egin zuten pertsonen etorkizunaz eta orientatzaile gisa horretan esku hartzeko ditugun aukerez galdetzen diogu geure buruari. Planteamendu horiek egiten dira bokaziozko orientazioaren esparru teorikotik abiatuta eta, unibertsitateko karrera batean graduatu ondoren, *working holiday* bat hautatzeko esperientzia zehatz batean oinarrituta.


**LÓPEZ ROCA, N.**, 2023. [De menor infractor a alumno con éxito: el proceso de éxito educativo. Un estudio de caso.](#) Tesis doctoral. Universitat de les Illes Balears

Ikerketa-lan bat aurkezten da, zeinaren azken helburua baita erakustea eta baloratzea, kasuen azterketatik abiatuta, hiru pertsona desberdinekin egindako esku-hartze baten diseinua eta gauzapena, haien eskola- eta prestakuntza-prozesuak arrakasta izan dezan, gizarteratzeko babes-faktore gisa. Tesi-proposamen hori sortu da gutxi landutako eta gutxi bistaratutako gai bat modu positiboan publiko egiteko beharraren ondorioz: adingabe arau-hausleen arrakastazko hezkuntza-prozesuak. Ikerketaren eszenatokia Irakaskuntza Arautuaren Programa da, Balear Uharteetako gazte-justiziako adingabeen zentroetako kide den Bigarren Hezkuntzako Institutuko talde batek gauzatzen duena. Programa horrek, hezkuntza-, gizarte- eta emozio-tresnak etengabe hornituz eta testuinguruan lan eginez, barneratze-neurri judizialak bete behar dituzten adingabe/gazte arau-hausleak erreferentziazko eskola- eta gizarte-testuingurura itzultzea bilatzen du. Azterlan kualitatibo bat da, eta azterketa horretatik ateratzen diren emaitzak eta gogoetak interesgarriak izateaz gain, planteatutako hipotesiak egiaztatzen dituzte.

**PUCHE CABEZAS, L.**, 2023. [Itinerarios de conciliación corporal a través de la sexualidad y el placer: un análisis de narrativas de jóvenes trans.](#) AIBR: Revista de Antropología Iberoamericana, vol. 18, no. 2, ISSN 1578-9705

Transexualitatearen patologizazioak eta horrekin lotzen diren «gorputz okerraren» erretorikak, sexu/genero dikotomiko eta hierarkiko baten esparrukoek, asko baldintzatzen dute transek (transexualek, transgeneroek) beren buruaz pentsatzeko eta gorputz-praktikak eta sexualitateak bideratzeko duten modua. Hala ere, transexualitate-eredu kirurgikoaren arauzko murrizketek gazte askoren bizitzak markatzen jarraitzen duten arren, haien narratiba sexoafektiboetara hurbiltzen garenean, sexualitatean, gorpuztasunean eta desioan bizitzeko modu berritzaileak eta emantzipatzaileak agertzen dira. Bizipen horiek disforiaren ezinbestekotasuna zalantzan jartzen dute; sexualitatearen (hetero) eraikuntzaren eta generoaren eraikuntzaren (bereziki maskulinitatearena) eredu hegemonikoak aurkaratzen dituzte; eta sarritan trans gorputzei egozten zaien desira ezaren presuntzioa ukatzen dute. Artikulu honetan aztertzen diren diskurtsoak Espainiako Estatuan egindako ikerketa etnografiko baten esparruan trans gisa identifikatutako gazteekin izandako elkarrizketetatik datoz.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko azaroko artikuluko nabarmenak



FRIEDMAN, E.J. y RODRÍGUEZ GUSTÁ, A.L., 2023. [“El viento arrollador”: la irrupción de las jóvenes en la protesta del Ni Una Menos de Argentina](#). *Perfiles latinoamericanos: revista de la Facultad Latinoamericana de Ciencias Sociales, Sede México*, vol. 31, no. 61, ISSN 0188-7653

2015ean, Argentinako aktibismo feministak aurrekaririk gabeko eskala lortu zuen *Ni Una Menos* martxarekin. Protesta hori eremu enpirikotzat hartuta, emakume gazteek mugimendu feministekin zergatik egiten duten bat azaltzen duten faktoreak aztertzen dira artikulu honetan. Bereziki, zergatik jo zuten kalera feminizidioak eta genero-indarkeria salatzen eta gertakari horien aurka protestatzeko. Gazteei, martxaren antolatzaileei eta ibilbide luzeko ekintzaile feministei egindako elkarrizketen bidez erakusten da aurrefiguratiboki eta performatiboki berritzaile izan zen deialdia eta aurretik zegoen antolaketa-trama feminista nola izan ziren kaleko protestarekiko sentsibilitate gaztea bideratzeko baldintzak. Lanak belaunaldi-unitateak, gazteek duten egiturazko prestasuna eta mugimenduen adierazpen-politika nabarmentzen ditu, gazteen protesta feministarako baldintza gisa.

MARTÍNEZ MARCOS, B., 2023. [La visibilidad de la diversidad de género en las redes sociales. El caso de los influencers trans españoles en TikTok](#). Femeris: Revista Multidisciplinar de Estudios de Género, vol. 8, no. 3, ISSN 2530-2442

Sare sozialak egunero erabiltzen dituzten pertsonen ehunekoa gero eta handiagoa da, eta haien hedapen eta onarpen azkarrak (bereziki publiko gazteenaren artean) bihurtu ditu sozializatzeko, lagunak sortzeko, pertsona askoren egunerokoa azaltzeko eta abarretarako modu berria. Genero-identitatearen gaia gero eta ohikoagoa da sare sozialetan, baina esposizio horrek abantailak eta desabantailak ditu, batez ere sare sozial horietan azaltzen den pertsona offline munduan ere kolektibo baten kide izateagatik jada diskriminazioa jasaten badu. Trans kolektiboa LGBTTTQI+ osatzen dutenetako bat da. Kolektibo horiek sare sozialak erabiltzen hasi dira beren historia, beren trantsizioko zailtasunak, sentitzen dituzten emozioak, sentimenduak eta abar erakusteko. Azken batean, beren esperientziak kontatzen dituzte, eta, era berean, offline munduan nahiz online munduan jasan ditzaketen arbuio-, indarkeria- eta/edo jazarpen-egoerak salatzen dituzte. Erakusketa mediatiko horrek babesa ematen dieten pertsonak, identifikatuta sentitzen direnak, transfobiaren aurkako borrokaren ikono gisa hartzen dituztenak eta abar bidelagun egiten ditu, baina erakusten du, halaber, gizartearen alde iluna, non beste erabiltzaile batzuek haien kontrako argitalpenak erabiltzen dituzten errespetu faltak, irainak, mehatxuak eta abar adierazteko. Beraz, galdera honako hau da: balio al dezakete sare sozialek arbuioaren aurka borrokatzeko eta pertsonen beren generoa deskubritzen eta eraikitzen laguntzeko?

MOLANO MÉRIDA, N., LEÓN MANSO, E. y GALLARDO FERNÁNDEZ, I.M., 2023. [Habilidades sociales en niños, niñas y adolescentes tutelados con Familias Colaboradoras y su relación con el apoyo percibido y la satisfacción vital](#). Anuario de psicología, vol. 53, no. 1, ISSN 0066-5126

Familia Laguntzaileak programak egoitza-harreran dauden haur eta nerabeei aukera ematen die beste pertsona eta familia batzuekin bizitzeko aldi laburrak izateko. Neska-mutil horientzat onura handia dakarren arren, familia-lankidetzari buruzko ikerketa oso eskasa da. Gizarte-garapenaren garrantzia eta horrek haurren eta gazteen ongizatearekin duen harremana kontuan hartuta, lan honen helburu nagusia da egoitza-harreran zeuden eta Familia Laguntzaileak programan parte hartu zuten 9 eta 17 urte bitarteko 37 haur eta neraberen gizarte-trebetasunak ebaluatzea. Ebaluazioa beren eta erreferentziako 37 hezitzaileen ikuspegitik egin zen. Horretarako, Social Skills Improvement System (SSIS) tresna erabili zen, neska-mutilei eta haien hezitzaileei aplikatu zitzaiena. Beste helburu bat da

aztertzea mutil eta neska horien gizarte-trebetasunen autopertzepzioaren eta beren gizarte-laguntzako iturriei eta bizi-gogobetetzeari buruz egiten duten balorazioaren artean zer lotura dagoen. Emaitez erakutsi zuten neska-mutil horiek gizarte-trebetasun handiagoak zituztela beren hezitzaileen balorazioarekin alderatuta. Hala ere, puntuazioak biztanleria orokorraren batezbestekoan kokatu ziren. Norberak gizarte-trebetasunak hobeto hautematea familia laguntzaileen gizarte-babes handiagoarekin eta bizi-gogobetetze handiagoarekin lotu zen. Emaiza horiei begiratuta, agerikoa da familia laguntzaileen garrantzia gizarte-trebetasun horiek garatzeko. Gainera, egoitza-harreran esku hartzeko eta familia-lankidetzako baliabidea garatzeko inplikazio praktiko batzuk eztabaidatzen dira. Horien artean, nabarmendu behar dugu neska-mutil parte-hartzaileen ikuspegi eta esperientzia propioa izateko beharra.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko urriko artikulu nabarmenak



LAYRÓN FOLGADO, J.E., 2022. [Estudio longitudinal del riesgo de suicidio con técnicas de evaluación momentánea en estudiantes españoles](#). Universidad Católica de Valencia San Vicente Mártir

Nork bere buruari min egiteko aukeran oinarritutako pentsamenduek eta portaerek hilgarriak izan daitezkeen eta gazteen artean prebalentzia handia duten fenomenoek espektro zabal bati egiten diete erreferentzia. Hori dela eta, ikasketa enpirikoak behar dira, problematika horrek unibertsitateko ikasleengan duen eragina gehiago ezagutzeko. Tesiaren helburuak izan ziren, alde batetik, Espainiako unibertsitateetako ikasleen ideagintzaren, planen, jokabide suizidaren eta autolesio ez suiziden prebalentzia estimatua aztertzea, bai eta haien ibilbideak ere; eta, bestetik, populazio-segmentu horren aipatutako jokabideen iragarle sendoenak identifikatzea.

RAMÍREZ, A., 2023. [Rodar el pueblo: estructuras de aprendizaje juvenil y acogida comunitaria](#). Revista CoPaLa: Construyendo Paz Latinoamericana, no. 18, ISSN 2500-8870


Testuaren helburua da Mexiko Hiriko megalopoliko herri bateko gazteek prekarizazio eta gazte-hilketa egoerari aurre egiteko eta erantzuteko dituzten moduen berri ematea. Horretarako, gazte-kolektibo bat eratzen dute, eta, bizikleta-ibilaldien bidez,

ikaskuntzarako eta harrera komunitariorako egiturak eraikitzen dituzte, bizikidetzarako eta bizitzeko espazioak eratzen dituztenak. Hezkuntza-ikerketako esperientziatik eta gazteriari laguntzeko lanetik abiatuta, hausnarketa bat egitea proposatzen da, eskola-instituzioaz eta hezkuntza- eta gazte-arloaren ikuspegi helduzentriko hegemonikoez haraindi doazen beste hezkuntza-modu batzuen inguruan. Antolatutako gazte-ekintza kultura-subjektuak prestatzeko hezkuntzagune gisa pentsatzeak hurbilketa bat ekarri zuen, epistemologia dekolonialen, ikerketa kualitatiboaren, metodologia horizontalen eta ikerketa parte-hartzailearen arteko loturatik abiatuta, eta, horrela, elkarrizketa epistemikoa ezarri zen, ikerketa-esperientzian eta gaztetasunaren izaeran eta esperientzian oinarrituta. Ondorioztatzen denez, bizikleta ibilaldi komunitarioek, kultura-subjektuak prestatzeko hezkuntza-espazio gisa definitutakoek, mugiarazten dituzte jakintza kulturalak eta komunitarioak, gazteei nork bere buruaren zaintzaren eta ezagutzaren eta komunitate-erresistentziaren inguruko ikaskuntza-esperientziak garatzea ahalbidetzen dietenak.

VILÀ BAÑOS, R., SIMÓ SÁNCHEZ, M., SCHMIDLIN ROCCATAGLIATA, M. y BELTRÁN SÁNCHEZ, O., 2023. [El periplo de la juventud que migra sola: procesos migratorios e itinerarios institucionales](#). Revista de investigación educativa, RIE, vol. 41, no. 2, ISSN 0212-4068, 1989-9106

Artikulu honen helburua da Bartzelonan bakarrik migratzen duten gazteen migrazio-prozesuari ekitea, egin behar duten ibilbide geografikoa eta instituzionala ezagutzea eta Bartzelonan aurre egin behar dieten egoerak ezagutzea. Helburu horri erantzuteko, azterketa kualitatibo-deskribatzaile bat egin zen, elkarrizketa-teknikak eta eztabaida-taldeak oinarri hartuta, hiru kolektiboren ikuspegia identifikatzeko eta triangulatzeko: Bartzelonara bakarrik migratu duten gazteak, gazte horiekin erakundeetan lan egiten duten hezitzaileak eta zentroyen zuzendaritza. 42 gaztek, 15 hezitzailek eta DGAIako arduradun batek eta hirugarren sektoreko beste batek hartu zuten parte. Emaitzek erakusten dutenez, emigratzeko motibazio partekatuak daude, batez ere jatorrizko herrialdeetako prekariedade-egoerei eta etorkizun hobe bilatzeari lotuta. Aldi berean, ikusi zen aurretiazko itxaropenak eta Bartzelonan aurkitzen duten errealitatea oso desberdinak direla. Bestalde, Bartzelonara iristeko hainbat bide eta ibilbide geografiko identifikatzen dira, baita hainbat zirkuitu instituzional ere. Azken horiek migranteak igaro diren autonomia-erkidegoen arteko ezberdintasunak dituzte ezaugarri. Azkenik, pertsona batzuek bizi duten kaleko egoerak prekariedade eta babesgabetasun handia dakar, eta zentroetatik ihes egin duten adineko edo adingabeko gazteek bizi dute batez ere.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko iraileko artikulu nabarmenak



**CIMENO MONTERDE, C., LIMA CARDOSO, D.T. de, JIMÉNEZ ADAME, B. y MELERO LAVIÑA, E., 2023.** [Guía para profesionales que intervienen con niños, niñas y adolescentes que migran solos.](#) Zaragoza, Instituto Aragonés de Servicios Sociales (IASS). ISBN 978-84-09-48874-2

Dokumentu hau Aragoiko Gizarte Zerbitzuen Institutuak eta Zaragozako Unibertsitateak elkarlanean egindako gida da. Bakarrik migratzen duten haur eta nerabeekin esku hartzen duten profesionaleri zuzenduta dago. Bi ataletan banatuta dago. Batetik, oinarriko kontzeptu batzuk, haien ibilbideak, kalteberatasun-egoerak, nazioarteko eskubideak eta abar ulertzeko, eta, bestetik, harrera instituzionaleko ibilbideak, Europako testuinguruan izandako esperientziekin eta ikerketekin. Halaber, eguneroko esku-hartzerako jardunbide egokiak, aholkuak, prestakuntza eta gaitasun profesionalak eskuratzea biltzen ditu.

**DÍEZ GUTIÉRREZ, E.J. y ALONSO MARTÍNEZ, H., 2023.** [Educar en los márgenes del sistema: educación comunitaria para la emancipación.](#) *Educar*, vol. 59, no. 2, ISSN 0211-819X, 2014-8801

Ikerketa honek *Espacio Mestizo* proiektuaren kasua aztertzen du, Leongo hirian arrisku sozialeko egoeran dauden gazteekin egindako arte komunitario eta herrikoiaren proiektua. *Espacio Mestizo* proiektuaren kasuaren azterketari buruzko ikuspegi kualitatibo idiografikoa planteatu da. Egindako teknikak esplorazio-elkarrizketak, sakoneko elkarrizketak, eztabaida-taldeak eta bizitza-kontakizunak izan ziren. Emaitzek erakusten dutenez, *Espacio Mestizok* arriskuan dauden nerabeei emantzipatzen laguntzen die, autoestimua eta ahalduntzea areagotzea nahiz parte hartzen duten nerabeen erantzunkidetasuna bultzatuz, baina bereziki nabarmentzen da garapen komunitarioaren bultzada herritartasun-eredu kritiko bat eraikitzeko, eta eredu horrek balio prosozialak dituzenez, gizarte-garapenari laguntzen dio. *Espacio Mestizon* parte hartzeak, hezkuntza sozial, herrikoi eta komunitarioaren ikuspegitik, ekarri zuen modu kontziente eta konprometituan inplikatzeko proiektu komun eta kolektibo batean, modu demokratikoan, eta horrek auzoen arteko nolabaiteko kohesioan ere eragin zuen.

**GIL RUIZ, F.J. y HERNÁNDEZ HERRERA, M., 2023.** [Ron da error: el consumo digital de los jóvenes a la luz de las tesis de Byung-Chul Han.](#) *Palabra Clave*, vol. 26, no. 3, ISSN 2027-534X, 0122-8285

Artikulu honek eduki digitalak kontsumitzen dituzten gazteen irudiari buruzko hausnarketa planteatzen du, *Ron da error* (Smith eta Vine, 2021) filmaren analisiaren bidez. Zinemaren eta gazteen arteko harremana erakutsi eta egungo testuinguru teknologikoa zirriboratu ondoren, Byung-Chul Han filosofoaren tesiak aintzat hartzen dira filmean sakontzeko eta horrek ingurune hiperkonektatu batean egiten duen gazteen kontsumoari buruzko erretratua ateratzeko. Ondorioek erakusten dutenez, kontsumo digitalak alienatu egiten ditu gazteak uko egin ezin dioten ingurune teknologikoan; ingurune horrek urruntzen ditu pertsona egiten dituen guztietatik, eta beren banakotasuna kentzen die robotek ematen dituzten algoritmoen boterearen esku utziz.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko udako artikulu nabarmenak



**EL GHARBI, S.,** 2022. [La diversidad es una riqueza que exige un trato de igualdad](#). Cuaderns de la Mediterrània = Cuadernos del Mediterráneo, no. 34, ISSN 1577-9297

Gaur egun, gobernu- eta toki-politikek genero-ikuspegia duten mekanismoak eta espazioak sustatzeko eta sortzeko erronkari egin behar diote aurre, aukera emateko jatorri desberdineko herritarrei gizarte-elkarrizketan eta eztabaidan laguntzeko, bai eta erabaki politikoak hartzen ere. Hala ere, gaur egungo errealitatea da aniztasunaren erronkei eman beharreko erantzun eraginkor eta egokiak, batzuetan premia behar direnak, ez direla iristen, nahiz eta zenbait diskurtso politikok asmo onak izan; eta horrek, azkenean, jatorri desberdineko herritarren irudia kaltetzen du. Pertsona horietako askok ez dute beren burua aktibismo politikoarekin identifikatuta sentitzen immigrazioaren eremutik haratago, eta bizi diren herrialdeko politikan eta gizarte zibilean parte hartzera ausartzen diren pertsona apurrak beren jatorri kultural edo erlijiosoaren arabera sailkatuak izaten dira. Horrela, bada, beharrezkoa da politika bizkorrak aktibatzea, benetako eta berdintasunezko inklusioa ahalbidetzeko, atzeritarrei buruzko legearen erreformatik hasita. Beldurra alde batera utzita bakarrik egin ahal izango diogu aurre Europan eta Espainian aurrera doan diskurtso totalitario eta diskriminatzaileari.

**LIBERA MEDINA, S.Ó.,** 2022. [Escucha empática en la valoración judicial del testimonio de niños, niñas y adolescentes víctimas de abuso sexual intrafamiliar](#). Documentos de trabajo social: Revista de trabajo y acción social, no. 65, ISSN 1133-6552

Artikulu honen bidez, azaldu nahi dira familiaren testuinguruan sortzen eta errepikatzen den sexu-abusu delituaren biktima izan diren haur eta nerabeen lekukotzaren balorazio judizialean dauden korapilo kritikoak. Horretarako, proposatzen du entzute enpatikoa balioestea justizia-arloan eta haurren eta nerabeen eskubideen babesean lan egiten duten pertsonen praktika profesionalerako printzipio gisa. Ildo horretan, prozedura judizialean entzuna izateko eskubideari buruzko irakurketa kritikoa sustatzen saiatzen da, biktimarengan eta haurtzaroaren ikuspegian oinarritutako ikuspegi batetik, biktimizazio sekundarioa arintzeko. Horretarako, prozesu penala osatzen duten faseak eta gizarte-langileek instantzia judizial horietako bakoitzean betetzen duten rola azaltzen dira.

**MIRANDA NOVOA, M.,** 2022. [El tratamiento de afirmación de género en menores con disforia de género y la validez del consentimiento informado](#). Cuadernos de bioética, vol. 33, no. 107, ISSN 1132-1989, 2386-3773

Praktika mediko pediatrikoan, genero-disforia edo genero-desadostasuna duten 18 urtetik beherakoen kasua izaten da, sexu biologikoaren eta sentitutako generoaren arteko inkongruentzia dutenak. Horrela, aukera medikoa eta juridikoa ematen da haur eta nerabeak genero-baieztapeneko tratamendua jasotzen hasteko. Helburu hori lortzeko adierazitako tratamendua elkarte zientifiko batzuek onetsi badute ere, zalantzan jarri dute, halaber, gorputzean egiten diren prozedurak atzeraezinak izan daitezkeelako. Hori dela eta, nahiz eta legeak nolabaiteko autonomia aitortzen dien adingabeei genero-baieztapenaren tratamendua hasteko erabakia hartzeko, ematen zaien informazioa ulertzeko eta onartzeko heldutasunik ezak zalantzan jar lezake baimen informatuaren baliozkotasuna.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko ekaineko artikuluko nabarmenak



**BELATEGI MADINA, A., EIGUREN MUNITIS, A., DOSIL SANTAMARIA, M., PICAZA GORROTXATEGI, M. y OZAMIZ ETXEBARRIA, N., 2022. [Bizkaiko harrera-etxeetako nerabeen emantzipaziorako prestakuntzaren errealitatearen azterketa](#). RES: Revista de Educación Social, no. 35, pp. 108. ISSN 1698-9007**

Harrera-etxeetan bizi diren gazteek 18 urte betetzen dituztenean, behartuta daude babes sistematik irtertera eta beraien independentzia prozesua nahitaez hastera. Artikulu honetan, trantsizio etapa hori bizi izan duten hainbat gazteren eta profesionalen ahotsak jaso dira, hala, beraiek bizitakoa ikustarazteko helburuarekin. Beraz, ikerketa honen bidez, gazteen errealitatea zein den jakin ahal izan da, eta gazte horiek harrera-etxetik irten baino lehenago jasotzen duten prestakuntza nolakoa den ikertu da. Honetarako, metodologia kualitatiboa erabili da. Lanaren emaitzak kontutan hartuta, gazteek jasotako prestakuntza gabeziaz beteta dagoela egiaztatu ahal izan da eta beraz, gazteen emantzipaziorako prestakuntza egokia sortzeko beharra nabarmendu da, horrela, haien etorkizun segurua ziurtatu ahal izateko.

**GUTIERREZ PÉREZ, B.M., BUDIAN, R.C., SERRATE GONZÁLEZ, S. y DACOSTA, A.F., 2022. [Padres helicóptero, hijos Blancanieves: La problematización de los usos digitales de los jóvenes entre profesionales de la educación](#). AIBR: Revista de Antropología Iberoamericana, vol. 17, no. 3, ISSN 1578-9705**


Espainiako hainbat probintziatako irakasle eta hezitzaileei egindako elkarrizketetan

oinarrituta, artikulu honetan aztertu nahi da haiek duten arriskuaren perzeptzioa Internet bidez nahiz, batez ere, sare sozialen bidez gazteek ehundutako harreman sozialei buruz. Zehazkiago, aztertzen dugu profesionalak nola hautematen dituzten arazo jakin batzuk, gazteen prestakuntza akademikoari ez ezik, pertsona gisa duten osaerari, gizarte-harremanen kudeaketari eta komunitate-bizitzari ere (zehazki, hezkuntzari) eragiten dietenak. Era berean, azaltzen da profesionalak nola hautematen duten familiek arrisku horien aurrean duten rola, bai eta familien eta ikastetxearen arteko lankidetzaren maila ere. Gure ikuspegia toki askotatik hartua, eta elkarriketatutako pertsonen esperientzia-ezagutza erakustea du helburu; izan ere, haiek gertu-gertutik behatzen dituzte hezkuntzako guneetan beraiekin erlazionatzen diren eta eguneroko bizikidetzaren duten gazteen praktika sozial digitalak eta ohitura horiek haiengan dituzten ondorioak.

**SOLDEVILLA SANTANDER, D.**, 2022. [El abordaje del absentismo escolar desde el modelo centrado en soluciones](#). RES: Revista de Educación Social, no. 35, pp. 103. ISSN 1698-9007

Artikulu hau eskola-absentismoaren arazoari heltzen saiatzen da. Arazo horrek ikastetxeetako hormak gainditzen ditu eta Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren ateetara iristen da, duen kontrol- eta hertsapen-funtzioagatik. Eskola-absentismoa maila teknikoan, neurri batean, ikusezina izan bada ere, errealitatea da arazo garrantzitsua dela, arrisku-faktoreekin eta, epe luzera, gizarte-bazterkeriako faktoreekin zuzenean lotuta dagoelako. Era berean, bere ebazpidea zailtzen duten berezitasunak baditu: nahitaezko deribazioak eta "bisitari" gazteak, familia "demandatzaileak" eta egingo diren demandak. Ondorioz, eskola-absentismoan esku hartzea ez da erraza. Horregatik, artikulu honek esku hartzeko proposamen praktiko batzuk egin nahi ditu, batez ere Konponbideetan Oinarritutako Ereduetik elikatzen direnak. Eredu horrek, epistemologikoki, aukera ematen die gazteei nortasun propio berri bat sortzeko eta, batzuetan erabat immobilizatzailea den arazo baten gaineko kontrola atribuitzeko. Proposamen horiek, bestalde, interesgarriak izan daitezke ikastetxeentzat ere.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko maiatzeko artikulu nabarmenak



DAVARA FERNÁNDEZ DE MARCOS, L., 2021. [El libro definitivo sobre Redes Sociales. Claves para padres y educadores](#). 1ª edición. Las Rozas (Madrid), Wolters Kluwer. ISBN 978-84-9987-217-9

Liburu hau pentsatuta dago Interneten eta Sare Soziales erabilera ulertzeko eta gazteak hezten dituzten pertsonak aplikatu ahal izateko. Oinarrizkoenetik hasita (terminologia, gizarte-sareen erabilerak edo motak) eta adingabe batek izan ditzakeen arazoetan eta arazo horiek nola konpondu amaituta. Aldi berean, adingabeak hezten eta Interneten igarotzen duten denbora guztiari etekina ateratzen laguntzen du. Liburuak aholku praktikoak eta ideia zehatzak ditu (zifrak, kasu errealak, isunak), eta jarraibideak, pausoz pauso, hiru sare sozial erabilienen pribatutasuna eta segurtasuna konfiguratzeko: Instagram, Tit Tok eta Whatsapp.

MORENO, A.G. y JURADO, M. del M.M., 2023. [Conductas prosociales y violencia escolar en la adolescencia: Una revisión sistemática con enfoque cualitativo](#). Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria, vol. 35, no. 1, pp. 143-166. ISSN 2386-5660. DOI 10.14201/teri.28629

Hezkuntza-testuinguruan, eskola-indarkeria da gizarte-arazo handienetako bat, gazteen jazarpen-kasuak ugaritu egin baitira azken urteotan. Lan honen bidez, eskola-indarkeriaren eta gizartearen aldeko jokabideen arteko harremana aztertu nahi da, gizartearen aldeko jokabideak eskola-indarkeria moderatzeko faktore izan daitezkeen identifikatzeko. Bestalde, lortutako emaitzen azterketa kualitatiboa egingo da, aztertu beharreko aldagaien artean dagoen erlazioa ezagutzeko. Emaitzek adierazten dute zenbait faktorek, hala nola emozioek, bizitzarekiko gogobetetzeak, enpatiak, familiaren laguntzak edo hezkuntza-estrategia egokien erabilerak,

indarkeriazko portaeren erabilera murrizten dutela. Hortaz, esan daiteke gizartearen aldeko jokabideak dituzten nerabeek berdinekin indarkeria-egoera gutxiago izaten dituztela. Azterketa kualitatiboari erreparatuta, aldagaien arteko erlazioak eta konklusioak aztertu dira, eta, horrela, hautatutako artikuluetatik ateratako aipamen batzuk gehitu dira. Funtsezkoa da ikasle nerabeekin jarduteko estrategiak ezartzea, haien gizartearen aldeko jokabideak indartzeko.

PÉREZ-ALBÉNIZ, A., LUCAS-MOLINA, B., GUTIÉRREZ, A., ELVIRA-REY, C., ORTUÑO-SIERRA, J., DíEZ-GÓMEZ, A. y FONSECA-PEDRERO, E., 2023. [Orientación sexual, autoestima y rendimiento académico en la adolescencia](#). Revista de Educación, vol. 399, pp. 79-103. ISSN 0034-8082. DOI 10.4438/1988-592X-RE-2023-399-562

Azken urteetan gizarte-aldaketak izan badira ere, agerian geratu da sexu-gutxiengo bateko kide izatea desberdintasunekin, diskriminazioekin eta estigmatorekin lotzen dela, eta horrek pertsona horiek zaugarritasun-egoeran kokatzen ditu. Zaugarritasun psikosozial horrek eragin bereziki negatiboa izan dezake nerabezaroan. Zehazki, ebidentzia zientifikoak lotura argia erakutsi du orientazio sexual ez-heterosexualaren eta osasun mentalaren esparruan arazoak egotearen artean. Horri lotuta, zenbait azterlanek adierazi dute sexu-gutxiengo bateko kide izateak errendimendu akademikoan duen eragina. Hala ere, orain arte egindako azterketak urriak dira, bereziki nerabezaroan, eremu akademikoa funtsezkoa den aroan. Azterlan honen helburua izan zen aztertzea, nerabeen lagin adierazgarri baten bidez, ea sexu-orientazioko talde minoritario bateko kide izatea (homosexualak, bisexualak edo questioning) errendimendu akademiko okerragoarekin lotuta zegoen. Gainera, autoestimua errendimendu akademikoan duen garrantzia dela eta, aztertu nahi zen ea autoestimu-maila egoki batek bi aldagaien arteko harremana moderatu dezakeen. Sexu-orientazioa beste pertsona batzuekin izandako erakarpenaren bidez ebaluatu zen. Errendimendu akademikoaren adierazle gisa, aurreko ikasturteko batez besteko nota eta aurreko ebaluazioan gaitu gabeko irakasgaien kopurua erabili ziren. Emaitzek ez zuten erakutsi sexu-orientazioaren eragin nabarmenik, ezta horren autoestimua elkarrekin ere, erabilitako errendimendu akademikoaren adierazleetan. Emaitzak aurreko azterlanetan lortutakoen aldean desberdinak dira, eta adierazten dute sexu-orientazioaren arabera gutxiengo bateko kide izatea ez dagoela lotuta ikasketa-mailako zailtasunekin.

## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko apirileko artikulua nabarmenak



**BILBAO URKIDI, S.**, 2022. [Situación actual y retos socioeducativos de las jóvenes afrodescendientes en el País Vasco](#). HUMAN REVIEW: International Humanities Review / Revista Internacional de Humanidades, vol. 11, no. 16, pp. 1. ISSN 2695-9623

Artikulu honetan afrikar ondorengo Euskadiko neska gazteen errealitateari erreparatzen diogu, beren bizipenei eta aurkitzen dituzten zailtasunei dagokienez, bost dimentsiotatik abiatuta: familia eta gizarte-ehuna, hezkuntza, lana, identitatea eta bizikidetzatza. Horretarako, ikerketa sozialeko metodologia kualitatiboa erabili da. Zehazki, inkesta diskrezional bat egin da, guztira hiru eztabaida-talderen laginak osatutakoa. Aztertutako bost dimentsioen emaitzek gazte horiek beren bizitzetan dituzten zailtasunak islatzen dituzte.

**CASTRO ÁLVAREZ, R., GÓMEZ MARÍ, I. y TÁRRAGA MÍNGUEZ, R.**, 2023. [Mamá, me quiero ir de este colegio. Un análisis de las experiencias de acoso escolar de estudiantes con diversidad funcional](#). Educatio siglo XXI: Revista de la Facultad de Educación, vol. 41, no. 1, pp. 107-128. ISSN 1989-466X, 1699-2105

Eskola-jazarpena prebalentzia handiko arazoa da gure eskoletako geletan. Dibertsitate funtzionala duten gazteak bereziki ahulak dira horrelako egoeretan sartzen direnean. Azterlan honetan dibertsitate funtzionala duten bost gazteren jazarpen-esperientziak aztertuko ditugu. Horretarako, erdiegituratutako bost elkarrizketa eta eztabaida-talde bat egin dira. Elkarrizketatutako pertsonak hitzeko jazarpena, jazarpen fisikoa, soziala eta sexuala jasan izana kontatzen dute. Ikastetxeek egoera horiei emandako tratamendua ez zen eraginkorra izan, eta kasu guztietan hartutako konponbidea eskolatze-modalitatea aldatzea izan zen. Emaitza horiek nabarmentzen dute irakasleak prestatzeko eta ikasleak sentsibilizatzeko ekintzak egin behar direla, jazarpen-egoerak prebenitzeko eta horien kontra jarduteko, bereziki jazarpen-egoerak dibertsitate funtzionala duten ikasleekin zerkusia badu.

**MARTÍN VIDAÑA, D.,** 2022. [Representaciones de la masculinidad: una aproximación social en clave de igualdad sobre la construcción de historias de vida de los hombres.](#) Tesis Doctoral. Universidad de Granada

Gaur egun, gizarte-eskalako hainbat sektoretan maskulinitateen «Men «studies» ikasketak azaleratzeak aukera ematen du Gizarte Zientzien historian gizonezkoak agertzeko genero batek markatutako subjektu gisa. Ikuspegi horretatik, egia bada ere gizonak subjektu unibertsal gisa ordezkaturak agertzen direla eta mendebaldeko gizarteetan subjektu horiek boterea eta autoritatea dituztela, beharrezkoa da maskulinitatearen azterketa sakona egitea, genero-identitate gisa ulertuta, hau da, gizon guztiek beren sexu biologikoaren arabera sozialki eraikitako erreferentzia gisa ulertuta. Horregatik, maskulinitatearen ideiak esan nahi du osaera biologikoaren arabera gizonezkoei dagozkien pentsatzeko, jarduteko eta sentitzeko hainbat modu eszenaritzen direla, publikoki edo gizartean. Hala ere, azken hamarkadetan genero-berdintasunaren arloan egindako aldaketek aukera ematen dute maskulinitateak eraldaketa politiko eta pertsonaleko prozesua bizitzen hasteko.

## GEBren dokumentazio zentroko 2022ko martxoko artikuluko nabarmenak



**CALVO SAN JUAN, A.**, 2023. [Cuerpos múltiples, líquidos, insaciables y en venta: notas sobre sexualidad e igualdad en los y las adolescentes de Salamanca y provincia](#). Con-ciencia social: Segunda Época, no. 6, pp. 135-150. ISSN 2605-0641

Artikulu honetan, Salamanca hiriko eta probintziako nerabeekin egindako prebentzio-lanetik abiatutako gogoeta egiten da; prebentzio-lan hori hezkuntza afektibo-sexualari buruzko jardueren eta tailerren bidez egin da, bai ikasgelan bertan, bai ikasgelatik kanpo. Ikerketak honako gai hauek aztertzen ditu: sexualitateari buruz zer dakiten, sexu-askatasun handiagoa sentitzen duten, desioa nola eraikitzen duten edo patriarkatuak eta feminismoak eraikuntza horretan zer eragin duten. Halaber, sozializazio kapitalistak nola eragiten duen nerabeen subjektibotasunak eraikitzen. Egindako esku-hartzeek laguntzen dute pentsatzen ea nola garatzen ditugun sexualitatea eta haren dinamikak sistema sozioekonomiko batean. Sistema sozioekonomiko horretatik abiatuta, inguratzen gaituenaren esanahiak osatzen ditugu, eta horretan generoaren gaia funtsezkoa da. Esparru horretan, sare sozialek, pornografiak, irudiaren gurtzak eta haren hipersexualizazioak edo hezkuntza afektibo-sexualik ezak gure sexualitatearen testuinguruaren zati handi bat hartzen dute.

**JIMÉNEZ ALVAREZ, M.G.,** 2022. [Transición a la vida adulta e inserción sociolaboral de jóvenes que han migrado de forma autónoma](#). Mediterráneo económico, no. 36, pp. 369-379. ISSN 1698-3726

Artikulu honetan, helduarorako trantsizioari eta gizarte-mentoretzak atzerriko gazteei gizarte- eta lan-laguntza emateko prozesuetan izan dezakeen funtsezko zereginari buruzko gogoeta egiten da. Bertan, zehazki, modu autonomoan migratu eta artean adingabeak zirela, Espainiara iritsi ziren neska-mutilez ari gara. Babes-sistemaren tutoretzapean egon ziren, familiarik eta laguntza-sarerik ez zutelako. Hasteko, hurbilketa analitiko labur bat egingo dugu nerabeen joan-etorriei eta horien esanahiei buruz, Ondoren, helduarora igarotzeko prozesuan sakonduko dugu, gazte guztien bizitzaren giltzarri-etapa den heinean. Artikuluak deskribatzen du gazte, atzerriar eta tutoretzapean izatearen berezitasuna, bai eta haiek aurre egin behar dieten zailtasunak ere. Azkenik, mentorian sakontzen dugu, lan-munduan sartzen laguntzeko tresna gisa, eta azken gogoeta batzuk plazaratzen ditugu.

**ROS, C., NÚÑEZ HERNÁNDEZ, R. y BENEDETTO, V.,** 2022. [Tensiones y continuidades con el modelo del emprendedor en jóvenes trabajadores del AMBA](#). Revista del Centro de Estudios de Sociología del Trabajo, no. 14, pp. 3-29. ISSN 1852-494X, 1852-4648

Ideologia neoliberalaren eskutik, "lanaren munduetan" eta enpleguan gertatzen ari diren eraldaketa handiek ekarri dute soldatapeko lana gero eta urriagoa izatea, desokupatuen kopurua handituta eta, aldi berean, okupatuta jarraitzen dutenen lana areagotuta. Era berean, kontratazio- eta erreklutamendu-moduak aldatu egin dira enplegagarritasunaren logika berria instalatzeko; hala, enplegagarritasuna ez da merkatuaren atributu izango, baizik eta pertsonarena, bera baita bere buruaren enpresaburua (enpreabilitatea). Bestalde, ekoizpen- eta antolaketa-teknologia berriek lanaren egoerak modu ezezagunetan aldatzen dituzte (plataformen ekonomia, teknobigilantzia, etab.), eta espazioaren eta eraldatzen dituzte denboraren koordinatuak, non lanaren esperientzia sortzen den. Artikulu honetan, egiten ari den ikerketa baten materialean oinarrituta, lanean ari diren eta beren burua ekintzaitzat jotzen duten gazteen bizi-proiektuan lanak dituen zentzuak aztertzen ditugu; bere zentraltasuna, existitzen dena edo existitzen ez dena, eta zein diren lanaren egungo antolaketa neoliberalak dituen lan-esperientzia baldintzapean birkonfiguratzeko moduak.

## GEBren dokumentazio zentroko 2022ko otsaileko artikulu nabarmenak



**AHEDO GURRUTXAGA, I.,** 2023. [Primer día de clase: comenzando a andar desde la cooperación, la politización y la visibilización de las desigualdades de género.](#) *Márgenes: Revista de Educación de la Universidad de Málaga*, vol. 4, no. 1, pp. 135-153. ISSN 2695-2769

Testu honek goi-mailako hezkuntzaren bi erronkari aurre egin nahi die: ikaskuntzaren esparrua ikasleengan zentratzea eta hori genero-ikuspegiarekin egitea. Bi asmo horien elkargunean kokatuta, helburua da tresnak ematea ikasgeletako genero-desberdintasunei helduko dien lankidetzako ikaskuntzaren oinarri diren logikak ikasleei ikusarazteko. Horretarako, une erabakigarria da ikasgaiaren aurkezpenean ikasleekin izaten den lehen harremana, ikerketek erakusten baitute ikasgaiaren irakaskuntzako lehen orduak ikasturtean zehar ikasteko motibazioan eragina dutela. Talaia horretatik, eta ikasleengan oinarritutako ikaskuntzaren funtsezko elementuak eta goi-mailako hezkuntzari aplikatutako genero-ikuspegia zehaztu ondoren, deskribatzen da Soziologia eta Zientzia Politikoko lehen mailako ikasgai baten aurkezpenean, emozioa, sinbolismoa eta konfiantza giltzarri diren teknika aktiboen multzo batean oinarritutakoan, emandako lehen bi orduetan inplementatutako esperientzia bat. Esperientzia horrek aukera ematen du, lehen kontaktutik, ikasgelako desberdintasunak agerian uzteko, ikasgaiaren metodologia eta eduki nagusi batzuk kokatzeko eta prozesu politikoa praktikatik bizitzeko. Izan ere, ikaskuntza prozesu politiko gisa ulertzen da, non lankidetzako funtsezkoa den, eta hortik abiatuta testu honek eredu bat aurkezten du. Eredu horretan, zentralitatea jartzen da berdintasunean ikasteko motibazioa lortu nahi duten ikasleengan.

**BLÁZQUEZ VILAPLANA, B.**, 2022. [Violencias sexuales en la Universidad: del silencio al activismo juvenil en redes](#). Revista internacional de pensamiento político, no. 17, pp. 51-74. ISSN 1885-589X

Emakumeak, gazteak eta ikasleak, hasi dira apurtzen unibertsitateetan normaltzat jotzen ziren isiluneak, beren campusetan gertatzen diren sexu-indarkeriei dagozkienak. Ziberaktibismo feministaren bidez eta salaketak aurkezteko bitarteko ez-konbentzionalak erabiliz, sareak sortu dituzte, biktimei zuzendutako laguntza- eta elkartasun-espazioak sortzeko, erantzun kolektiboko estrategia gisa. Helburua da Espainiako unibertsitateetan sare mota horren adibiderik ikusgarriena ezagutaraztea: MeToo Universidad. Beren existentzia zabaltea eta bizirik irten direnei ahotsa ematea gauza bera da.

**SALINAS BOLDO, C.**, 2022. [Contra el "privilegio" de quedarse calladas: mujeres bisexuales en resistencia](#). RELIES: Revista del Laboratorio Iberoamericano para el Estudio Sociohistórico de las Sexualidades, no. 8, pp. 15-35. ISSN 2659-8620

Lan honen helburua da hausnarketa bat aurkeztea, bisexualitatea aitortzeak eta bizitzeak Latinoamerikako emakume gazte eta feministen nortasuna nola zeharkatzen duen azaltzeko. Horretarako, lau foro birtualetako bideoak aztertuko dira. Foro horietan emakume bisexual gisa duten bizipenaz hitz egin dute, bisexualas izena aukeratuta beren burua identifikatzeko. Helburu hori lortzeko, hamasei emakume bisexualen diskurtsoa kualitatiboki aztertu zen. Emakume horiek foro birtual horietan parte hartu zuten, eta bisexualitatearen inguruko esperientziak eta lankidetzak artistikoak partekatzeko helburua izan zuten. Emakume horien diskurtsoetan identifikatu ahal izan zen bifobiak zein modutan zaildu dien bisexual gisa identifikatzea; emakume horientzat foro horrek ekarri du beste pertsona batzuekin hitz egitea sexu-orientazioari buruz, bai eta bazterketari eta ikusezintasunari aurre egiteko aukeratu dituzten moduei buruz ere. Era berean, gazteak mintzatu ziren espazio propioak izateko beharraz beren istorioak kontatzeko, elementu komunak aurkitzeko eta politikoki iritzia emateko, eta, horrela, gizartean oraindik dagoen bifobiaren aurka borrokatzeko.

## GEBren dokumentazio zentroko 2022ko urtarrileko artikululu nabarmenak



ALONSO GALLO, L., 2022. [Cuerpos de la era digital: Historias del Silicon Valley de Herminia Gil Guerrero](#). Quaderns de filologia. Estudis literaris, no. 27, pp. 117-128. ISSN 1135-4178

H. Gil Guerreroren kontakizunetako emakume protagonistek (Historias de Silicon Valley, 2019) garai honetako arketipoa irudikatzen dute: pertsona baliagarria eta otzana, asexuatua eta itxuraz genero-desberdintasunetik at dagoena eta bere burua teknologia digitaleko enpresa handien zerbitzura atsedetik gabe esplotatzen duena. Aro digitalak eragin duen eraldaketaren ondorioz, belaunaldi gaztea depresiora, akidurara eta alienaziora daramaten inguruabarrak aztertzen ditu artikululu honek. Harreman pertsonalen sistemak ez du funtzionatzen komunikazio arin eta elkarrekikoaren bidez, baizik eta irudien bidez (sare sozialak) eta esaldi laburren trukearen bidez (txatak). Isolamendu-testuinguru horretan, emakume gazte horiek oso lotura txikia eta prekarioa dute janariarekin, eta horrek sendagaiekiko mendekotasuna eta elikadura-nahasmendu konpulsiboak sortzen ditu.

BAYARRI LÓPEZ, C. y CALVO GONZÁLEZ, S., 2022. [Transiciones hacia la inserción laboral desde entidades de educación no formal: Una mirada biográfico-narrativa](#). Profesorado: Revista de curriculum y formación del profesorado, vol. 26, no. 3, pp. 10. ISSN 1138-414X

Hezkuntza ez-formaleko, bigarren aukerako hezkuntzako edo hezkuntza alternatibetako erakundeek prestakuntza-programak eta/edo gizarte- eta lan-arloko programak garatzen dituzte eskola uztearen inguruko bizipenak eta desafekzioak dituzten gazteentzat. Erakunde horiek bilgune bihurtu dira kide sentitzeko, nortasun-lotura izateko eta pertsonak berriz lotzeko ikasketa- eta prestakuntza-esparrutik

haratago doazen bizitza-erronkei, eta, halaber, erakunde horiek, gazteek enplegua eskuratzeko trantsizioan, haiengan eragina duten eta laguntza ematen dieten gune dira. Proiektu horren ardatza izan zen abandonua prebenitzeko eta bizitza-erronkei berriz lotzeko programek, egoera ahulean dauden eta emaitza positiboak lortzen ari diren nerabeei zuzendutakoek, dituzten ezaugarriak eta ezarpen-testuinguruak ezagutzea eta prozesua arrakastaz gainditu zuten ibilbide horietako parte-hartzaileen bizitza-historiak ikertzea. Artikulu honetan, Gijon hiriko (Asturias) gizarte- eta hezkuntza-erakunde batean parte hartzen duen neska gazte baten historia autobiografikoa garatuko dugu, azterketa narratiboa egiten duen ikuspegi metodologiko kualitatibo batetik abiatuta. Zehazki, deskribatzen dira gaur egungo krisi-testuinguruan birlotura soziolaboralaren ibilbidearen hainbat uneri buruz gazteak izandako esperientziak eta interpretazioak. Emaitzak aurkeztu ondoren, eztabaida bat eskaintzen da baldintzatzaile estrukturalak eta sistemikoak aztertzeko, eta testuinguru soziokultural konplexuetan bizi diren gazteen enplegurako trantsizioetan eragina duten hezkuntza- eta prestakuntza-programen hobekuntzak ondorioztatzeko.

MARTÍNEZ GÓMEZ DE ALBACETE, J.F., MENGUAL, I., SANTAMARÍA BLASCO, L. y ZANÓN, M.J., 2022. [Identidad visual inclusiva. Taller de sensibilización en igualdad de género y diversidad sexual en contextos educativos](#). Educación artística: revista de investigación (EARI), no. 13, pp. 108-123. ISSN 2254-7592, 1695-8403

Ikerketa honetan, ikuspegi artistikotik abiatuta, diseinuari erreparatzen diogu jarrera-ekintza gisa, ikusizko komunikazio-metodo gisa, hezkuntzaren bidez genero, sexualitate eta inklusibitateari buruzko gaiak eta kezkek ikusarazten jarraitzeko, eta, horrela, gizarte hobea eraikitzeko, gizarte harremanei, kulturari eta lanari dagokienez. Proiektu artistiko eta ikertzailea da, eta oinarritzen da logotipo inklusibo bat sortzean eranskin gisa, hots, ekintza performatibo artistiko, inklusibo eta pedagogiko baten elementu osagarria da. Ekintza hori sortu da ikertzaileok, gizartearen gizabanako gisa, adierazi dugun jazarpenaren aurkako konpromisoaren ondorioz. Izan ere, gizarte horretako eremu guztietan, hezkuntza barne, areagotu egin da LGTBIQ+ edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonen aurkako jazarpena, baita emakumeei eta kolektibo horiei eragiten dieten desberdintasunak eta matxismoak ere.